

< **Soslaia****Francesco Tonucci**  
Haurren hiria, haurrekin landuz

**F**rancesco Tonucci (Fano, Italia, 1941) psikopedago-goa, pentsalaria eta marrazkilaria da. Ekosistema urbanoan haurren garrantziaz jabearazteko hainbat liburu idatzi ditu, horien artean ezagunena *Haurren hiria* da, oraintsu euskarara itzulia.

*Haurren hiria* egitasmoa gauzatu du European —Italian nagusiki, baina baita Espainian eta Katalunian ere— eta Ameriketan —Guatemalan, Mexikon, Argentinan...—. Eta, Euskal Herrian bertan ere, hainbat lekutan ari dira oinarri horiek lantzen, Oarsoaldeko Irrien lagunak

kasu. Buru-belarri ari dira eskualdeko kideak lanean.

*Haurren hiria* egitasmoak hirien antolakuntza haurren behar, eskubide eta ezaugarrietara egokitzea proposatzen du eta horretarako, haurrak entzuteko eta euren proposamenak biderratu eta gauzatzeko elkargunak sortzea proposatzen du. Fano, Tonucciren jaioterrian, haur kontseiluak antolatuta zizuten.

Haurrei boterea eta askatasuna ematea da Tonucciren te-



siaren abiapuntua. Haurrak entzuten ikasi behar dugula nabarmentzen du Tonuccik, euren bizipenak eta pentsatzeko era badutelako. Euren pentsatzeko modu hori indartuz lortuko ditugu, bere ustez, euren buruarekin ziur sentitzen diren haurrak. Bide horretan, komunitateko eragile guztien arteko talde lanaren eta auzolanaren aldarria egiten du: familia, eskola, herriko elkarte eta eragileak, udala... Horrela egiten dira herri hezitzaileak.

Oarsoaldean izan zen Francesco Tonucci joan den larunbatean. Oarsoaldeko Irrien Lagunak ekimeneko kideek harrera beroa egin zioten, eta zer egiten ari diren azaldu zioten italiarrari. Adi-adi entzun zituen haurren hitzak.

**Irrien Lagunen indarra sentitu du Tonuccik****Erredakzioa** Pasaia

**J**oan den asteburuan *Herri hezitzailea*, eskola herritarra jardunaldiak egin ziren Donostian. Besteak beste, Oarsoaldeko Irrien Lagunen esperientzia aurkeztu zen bertan. Jardunaldiotan gonbidatu berezi bat izan da: Francesco Tonucci, eta inguru honetara hurbildu dela baliatuta, Oarsoaldera bisita egin zuen larunbatean, Pasaiaira, hain zuzen ere.

Lehenbizi, jardunaldion antolakuntzan aritu direnak eta Tonucci bera bazkaltzera hurbildu

ziren Ondartxoko Itsas Kulturaren Zentrora. Segidan, horiek guztiak, Tonucci lemazain zutela, arraunean badiaren ingurua eza-gutzerara joan ziren Albaolako *Ameriketatik* ontzian.

Donibaneko Santiago plazara hurbildu zirenean zain zituzten Oarsoaldeko Irrien Lagunak taldeko kideak ongietorria egiteko. Oiartzungo, Errenteria-Oreretako, Lezoko eta Pasaiaiko haurrek eta familiek festa polit bat antolatu zioten italiarrari.

Txaranga lagun, Santa Ana eramitara igo zuten Tonucci, badiaren ikuspegi zabalagoa jaso ze-

zan, eta bueltan Pasaiaiko haurrek Mataderoan margotu duten paretan bildutako proposamenak aurkeztu zizkieten, margolana egin zuten haurrek, Mataderoan bertan.

Elkarrizketa luze eta hunkigarria sortu zen haurren eta Tonucciren artean, italiara-euskara itzultzaile lanetan Nicola Foroni zutela. Santiago plazako oholtzara eramateko Mataderoan etorri behar izan zuen Brinko pailazoak, oholtzan zain zituen eta Errenteria-Oreretako haurrak, euren eskuz egindako oparia emateko. Tonucci marrazkilaria-

ren estiloan egindako komiki bat oparitu zioten, euren ametsetako Errenteria jasotzen duen ipuin moduko bat.

Porrotx eta Brinko pailazoaren konpainia, txantxa eta jolasekin pozik jaso zituen bisitariak haurren ekarpenak, eta lanean jarraitzeko eskatu zien: «Beste era bateko mundua eraikitzeko ezinbestekoak zarete, ezin da ulertu gure mundua zuek gabe, eta zuen ideiak eta beharrak kontuan hartu gabe», esan zien Tonuccik.

Ekitaldia bukatzeko, Oiartzunen egin zen Irrigintza Jairako propio sortutako kanta dantzatu

zioten Tonucciri oholtzan eta behean bildutakoek, eta Porrotxek eta Brinkok zezen bat ekarri zuten entzierritoxoa egiteko.

Ordurako, Donibaneko lagunak sardinak erretzen hasiak ziren. Mahaiaren bueltan, mokadutxo ahoan, bertan bildutakoek egunari buruzko gogoeta egin zuten, eta umeek hiri eta herri duinagoak eta hezitzaileagoak sortzeko duten gogo eta beharrari buruz hitz egin zuten.

Pozik joan zen Francesco Tonucci Italia aldera, Irrien Lagunen harrera eta lanaren indarra sentitu zuelako.



Haurrek xehetasunez azaldu zioten Tonucciri egiten ari direna. Honek adi-adi entzun zuen dena. MENDI URUZUNO



Ondartxoko bazkariaren irudia da honakoa. MENDI URUZUNO



Pasaiaiko badia ezagutu zuen Tonuccik, lemazain bezala. MENDI URUZUNO